

# Ezintasun iraunkorra

PRESTAZIOAK



@administración  
electrónica



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE EMPLEO  
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN  
ESTATUKO IDAZKARITZA

SECRETARÍA DE ESTADO  
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



GIZARTE SEGURANTZAKO  
ESPAINIAKO INSTITUTUA



PRESTAZIOAK

# Ezintasun iraunkorra



9. argitalpena: 2016

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak argitaratua (PUB029) eusk

Argitalpen Ofizialen Identifikazio Zenbakia (AOIZ): 271-17-052-6

[www.seg-social.es](http://www.seg-social.es)

<https://sede.seg-social.gob.es/>

<http://publicacionesoficiales.boe.es/>

# Aurkibidea

<b>AURKEZPENA</b> .....	4	Prestazioa ordaintzea .....	20
<b>AZALPENA</b> .....	5	Bateragarritasuna, etetea eta azkentzea .....	21
<b>MAILAK</b> .....	5	<b>BALIAEZINTASUN HANDIA</b>	
<b>EZINTASUN IRAUNKOR PARTZIALA</b>		Azalpena, onuradunak eta betekizunak ... ..	22
Azalpena, onuradunak eta betekizunak ... ..	6	Gertaera eragilea eta ondorio ekonomikoak	22
Gertaera eragilea .....	7	Prestazio ekonomikoa .....	22
Ondorio ekonomikoak eta zenbatekoa ... ..	7	Prestazioa ordaintzea .....	23
Ordainketa eta bateragarritasuna ... ..	8	Bateragarritasuna, etetea eta azkentzea .....	23
<b>EZINTASUN IRAUNKOR OSOA</b>		<b>EZINTASUN IRAUNKORRA</b>	
Azalpena, onuradunak eta betekizunak ... ..	9	<b>BERRAZTERTZEA</b>	
Prestazioaren zenbatekoa .....	10	Kausak eta berrazterketaren epeak ... ..	24
• Oinarri arautzailea .....	10	Berrazterketaren ondorioak .....	25
• Ehunekoa .....	13	<b>EZINTASUN IRAUNKORRA-</b>	
Kalte-ordaina oroharreko prezioan ... ..	14	<b>ERRETIROA</b> .....	25
Gertaera eragilea eta ondorio ekonomikoak	15	<b>SISTEMA BEREZIAK</b> .....	26
Prestazioa ordaintzea .....	16	<b>ERREGIMEN BEREZIAK</b> .....	27
Bateragarritasunak eta bateraezintasunak ...	17	<b>KUDEAKETA ETA ESKABIDEAK</b> ... ..	28
Etetea eta azkentzea .....	17	<b>AGIRIAK</b> .....	29
<b>EZINTASUN IRAUNKOR</b>		<b>OINARRIZKO ARAUDIA</b> ... ..	31
<b>ABSOLUTUA</b>		<b>GSIN-REN</b>	
Azalpena, onuradunak eta betekizunak ... ..	18	<b>PROBINTZIA-ZUZENDARITZAK</b> ... ..	33
Gertaera eragilea eta ondorio ekonomikoak	18		
Prestazioaren zenbatekoa .....	18		
• Ehunekoa .....	18		
• Oinarri arautzailea .....	19		



## Aurkezpena

Ezintasun iraunkorra Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomiko bat da, eta balio du, ordaindutakoaren araberako modalitatean, pertsona batek izaten dituen soldata-errentaren edo errenta profesionalaren galerari aurre egiteko, gaixotasun edo istripu baten ondoriozko patologia edo traumatismo batengatik lanerako gaitasuna ustez behin betiko gutxitzen zaionean edo galtzen duenean.



Era askotako ezintasun-mailengatik ematen diren prestazioak Erregimen Orokorren eta Erregimen Berezien babes-ekintzaren barruan daude sartuta, kasu bakoitzerako adierazitako berezitasunekin.

Liburuxka honetan dagoena baino informazio gehiago behar baduzu, ipini harremanetan Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin (GSIN):

- **901 16 65 65** telefono-zenbakira deituz.
- Internet bidez: **www.seg-social.es**, edo hemen: **https://sede.seg-social.gob.es/**
- Pertsonalki ere joan zaitezke, aurrez **901 10 65 70** telefonoan hitzordua eskatuta, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak Espainia osoan dituen arreta eta argibideetarako zentro batera; edo, bestela, idatziz zuzendu haiengana.



## Azalpena

- Ezintasun iraunkorra da langileak, preskripzio bidezko tratamendua jaso ondoren, lanerako gaitasuna murrizten edo ezabatzen duten urritze anatomiko edo funtzional larriak izatea, zeinak objektiboki zehaztu daitezkeen eta, aurreikus daitekeenaren arabera, behin betikoak diren.

Kalifikazio horretarako ez da traba izango ezinduak lan-gaitasuna berreskuratzeko aukera izatea, baldin eta aukera hori medikoki ziurra ez bada edo oso epe luzerakoa bada.

- Interesatuak Gizarte Segurantzaren afiliatu zen egunean zituen urritze anatomikoen edo funtzionalen ez dute ezintasun iraunkorreko kalifikazioa eragotziko kasu hauetan: desgaitasunen bat duen pertsona izan eta urritze horien afiliatu ondoren laneratu bazez, berez edo lesio edo patologia berriengatik, eta interesatuak afiliatu zenean zeukan lan-gaitasuna murriztu edo ezabatu badiote.
- Ezintasun iraunkorra aldi baterako ezintasun egoeratik etorri behar da, aldi baterako ezintasunari dagokion babesik ez dutenen

kasuan izan ezik: bai babesik gabeko altaren pareko egoera batean daudelako, bai zirkunstantzia berean dauden besteren konturako langileen kasu berean daudelako, edo ezintasun iraunkorrera ez-altako egoeratik iritsi delako.

## Mailak

- **Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor partziala(\*)**.
- **Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoa(\*)**.
- **Edozein lanetarako ezintasun iraunkor absolutua**.
- **Baliaezintasun handia**.

Ezintasun iraunkorraren sailkapen-maila horietako bakoitzak, ezintasun iraunkorragatik dagokion prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea emango du.

---

(\*)Ohiko lanbidea: istripua izan bada, lanekoa izan edo ez, istripua izan duenean langileak duen ohiko jardura. Gaixotasun arruntaren edo laneko gaixotasunaren kasuan, ezintasuna gertatu baino lehen langileak egiten zuen jardura nagusia.



## Erregimen orokorreko: Ezintasun iraunkor partziala

### Azalpena

Ezintasun honetan, ezintasun osoa izan gabe, langileak bere lanbidean duen errendimendu normala gutxienez % 33 jaisten da, baina ez dio galarazten lanbideko oinarritzko egitekoetan jardutea.

### Onuradunak

Erregimen orokorrean egon eta ezintasun iraunkor partzialeko egoera aitortzen zaien pertsonak, ezintasuna sortzeko kontingentzia edozein dela ere, betiere, eskatzen diren betekizunak betetzen badituzte.

### Betekizun orokorrak

- Gertaera eragilearen egunean ohiko erretiroa jasotzeko legez eskatzen den adina bete gabe edukitzea, edo, ohiko erretirorako adina beteta izanagatik ere, ez betetzea ordaindutakoaren arabera erretiro-pentsioa eskuratzeko sistemak ezarritako baldintzak, baldin eta ezintasuna kontingentzia arruntengatik izan bada.
- Afiliatuta eta altan edo altaren pareko egoeran egotea, gertaera eragilea izan denean.

- Ezintasuna laneko istripuagatik edo laneko gaixotasunagatik izan bada, langileak eskubide osoko afiliatutzat eta altan daudela hartuko dira, enpresaburuak bere baldintzak bete ez baditu ere.
- Alta bereziko egoeratzat hartuko dira legezko greba edo ugazaben itxiera.
- Merkataritza-ordezkarien, artisten eta zezenketako profesionalen kasuan, gainera, kuotak ordainduta eduki beharko dituzte kontingentzia izan den egunean. Ordainduta ez badituzte, eta zor dituzten kuotak gabealdikoak ez badira, ordaindu egin behar dituztela ohartaraziko zaie, eta ez zaie prestazioa ordainduko betebeharrak hori betetzen ez duten arte. Hala ere, erregularizazio horrek eragindako aldeei dagokienez, artistek eta zezenketetako profesionalak ez dute obligazio hori bete beharrik izango, alde horiek kalkulatu eta haiei jakinarazten ez zaizkien artean.

### Kotizazio-betekizunak

- Ezintasuna istripuagatik izan bada -lan-istripua izan edo ez- edo laneko gaixotasunagatik, ez da alde zuzeneko kotizazio-aldirik behar.



## Erregimen orokorreko: Ezintasun iraunkor partziala

- Ezintasuna gaixotasun arruntagatik bada, ezintasun iraunkorra ekarri zuen aldi baterako ezintasuna amaitu zen egunaren aurreko 10 urteetan 1.800 egun eduki behar dira kotizatuta.
- Gaixotasunagatik baja hartu den egunean 21 urte baino gutxiago zituztenentzat, nahitaezko kotizazio-aldia bi batugairen bidez lortzen da: langileak 16 urte egin zituenetik aldi baterako ezintasun prozesuaren hasierara igarotako egunen erdia, gehi aldi baterako ezintasuneko aldi osoa, berau agortuta egon edo ez (18 hilabete).

### Prestazioaren gertaera eragilea

- Ezintasun iraunkorra berau eratorri aurreko aldi baterako ezintasuna amaitu ondoren sortu bada (bai epea agortu delako, bai medikuak ezintasun iraunkorra emateko proposamena egin eta alta eman diolako, edo bai GSINek erabaki duelako ezintasun iraunkorreko espediente bati ekitea 365 eguneko epea agortu ondoren), gertaera eragilea ezintasun iraunkorra dakarren aldi baterako ezintasuna amaitu den egunean gertatu dela ulertuko da.

- Ezintasun iraunkorrak lehenago aldi baterako ezintasunik izan ez badu edo aldi hori amaitu ez bada, gertaera eragilea Ezintasunen Balorazio Lantaldearen (EVI) edo, dagokionean, Osasun Ebaluazioen Institutu Katalanaren ebazpen-proposamenaren igorpen-datan gertatu dela ulertuko da.

### Ondorio ekonomikoak

Prestazioa dagokion ebazpena ematen denetik jasoko da.

### Prestazioaren zenbatekoa

- Prestazioa oroharreko prezioko kalte-ordain bat da, eta zenbatekoa ezintasun iraunkorra ekarri duen aldi baterako ezintasunaren subsidioa kalkulatzeko erabilitako oinarri arautzailearen 24 hileko dira.
- Aurretik aldi baterako ezintasunik egon den kontingentzia arruntetatik eratorritako ezintasun kasuetan, onuradunak babes hori ez zuenez, prestazio hori izateko eskubidea izan balu aldi baterako ezintasunagatik legokiokkeena hartuko da oinarri arautzailetzat.





## Erregimen orokorreko: Ezintasun iraunkor partziala

### **Prestazioa ordaintzea**

- Ordainketa bakarra egiten da.
- Pentsiorako gutxieneko zenbatekoak bermatzen dira ezintasun iraunkor partzialeko kasuetan, onuradunek 65 urte betetzen dituztenean, Lan Istripuei buruzko Araudiaren arabera.
- Prestazioa zergapean egongo da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) arauetan ezarritako moduan; dagokionean, zergaren konturako atxikipenen sistema orokorraren mende egongo da.

### **Bateragarritasunak**

- Bateragarria da norberaren konturako zein besteren konturako edozein lan-jarduera egitearekin.
- Bateragarria da ordura arte egindako lanari eustearekin.



## Azalpena

Langilea gaitasunik gabe uzten du bere ohiko laneko oinarrizko egitekoetan edo egiteko guztietan jarduteko, baina ez beste batean jarduteko.

## Onuradunak

Erregimen orokorrean egon eta ezintasun iraunkor osoko egoera aitortzen zaien pertsonak, betiere, eskatzen diren betekizunak betetzen badituzte.

## Betekizun orokorrak

Ezintasun iraunkor partzialerako eskatzen diren betekizun orokor berberak bete behar dira (ikusi 6. or.).

## Kotizazio-betekizunak

Ezintasuna gaixotasun arruntagatik bada, aurretik, benetako kotizazio-aldi bat edo lege edo erregelamendu batean berariaz onartutakoa izan behar da beteta. Kotizazio-aldi hori gertaera eragilea izan denean interesatuak zuen adinaren arabera izango da:

- 31 urte baino gutxiago baditu:

Gutxieneko kotizazio-aldi hau eskatzen da: 16 urte bete zituenetik gertaera eragileraren igarotako denboraren herena.

- 31 urte beteta baditu:
  - Kotizazio-aldi orokorra: 20 urte bete zituenetik gertaera eragilea izan den egunera igarotako denboraren laurdena; edonola ere, gutxienez 5 urte.
  - Kotizazio-aldi espezifikoak: beharrezko kotizazio-aldiaren bosten bat; gertaera eragilearen aurreko 10 urteetan egon behar da.

Pentsioa alta-egoeran edo altaren pareko egoeraren batean egonda eskuratzen bada, kotizatzeke betebeharra eduki gabe, kotizatzeke betebeharra bertan behera geratu zen egunetik atzeraka zenbatuko da aldi hori.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da baita ere, beharrezkoa den aldi espezifikoak osorik bete ez arren kotizatzeke betebeharra dagoen alta-egoera batetik lortzen denean pentsioa, baldin eta egoera hori justu kotizatzeke betebeharririk ez dagoen aurreko altako edo altaren pareko beste egoera batetik badator.



## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor osoa

- Ondorio horietarako, ez dira kontuan edukiko 6 hilabete baino gutxiagoko adin-tarteak (16 urtetik 16 urte eta erdira arteko adina duten onuradunen kasuan izan ezik). Handiagoak badira, urte erdiaren baliokidetzat hartuko dira. Hortik ateratako kotizazio-aldiak biribildu egingo dira, eta ez dira kontuan hartuko hilabetearen zatikiak.
  - *Erditzearekin parekatuta dauden kotizazio-aldiak langile eskatzailearen alde zenbatuko dira, hala dagokionean, ondorio guztietarako, baita eskatzen den gutxieneko kotizazio-aldia egiaztatzeko ere.*
  - *Seme-alabak edo adingabeak zaintzearekin parekatutako kotizazio-aldiak ere zenbatuko dira, hala dagokionean, eta ondorio guztietarako, eskatutako gutxieneko kotizazio-aldia betetzeko izan ezik.*
  - **Ezintasuna istripuagatik, lanekoa izan edo ez, edo lan-gaixotasunagatik izan bada:**

Ez da aurretiko kotizazio-aldirik eskatuko.
- Gaixotasun arruntagatik eratorritako pentsioa ezingo da 18 urtetik gorakoentzako gutxiengo kotizazio-oinarria baino % 55 baino gutxiago izan, une bakoitzean indarrean dauden urteko kopuruak aintzat hartuta.
  - Salbuespen moduan, oroharreko prezioko kalte-ordain bat eman daiteke, onuraduna 60 urte baino gazteagoa bada.

### Oinarri arautzailea

- Oinarri arautzailea, ezintasun iraunkorra zer arrazoiengatik sortu den kontuan hartuta, era batera edo bestera kalkulatu da:

#### **Ezintasuna gaixotasun arruntagatik bada, eta**

- Gertaera eragilea izan den egunean langileak 52 urte baino gehiago baditu:
  - a. Interesdunak gertaera eragilea izan den aurreko hilabeteko 96 hilabeteetan dituen kotizazio-oinarriak zati 112 egitean lortzen den zatidura da. Oinarri horiek arau hauen arabera zenbatuko dira:

Gertaera eragilearen aurreko hilabetearen aurreko 24 hilabeteen oinarriak balio nominalean zenbatzen dira.

### Prestazioaren zenbatekoa

- Ezintasun iraunkor osoko prestazioa biziarteko pentsioa da, hileroko ematen da, eta zenbatekoa aplikagarri zaion ehunekoaren eta oinarri arautzailearen arabera da.



## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor osoa

Gainerako kotizazio-oinarriak Kontsumoko Prezioen Indizearen bilakaeraren arabera eguneratuko dira, kotizazio horien hilabeteetan hasi eta oinarriak eguneratzen ez diren aldiaren aurreko hilabeterainoko bilakaeraren arabera. Aldi hori aurreko paragrafoan jasotakoa da.

- b. Lortutako emaitzari, kotizazio urteen arabera dagokion ehunekoa aplikatzen zaio, erretiro-pentsioetarako aurreikusitako eskala kontuan hartuta, eta kotizatutako urte gisa zenbatzen dira gertaera eragilearen egunean langileari une bakoitzean legez ezarritako ohiko erretirorako adina betetzeko falta zaizkion urteak. 15 urteko kotizaziora iristen ez bada, % 50 izango da aplikatuko den ehunekoa.
- c. Aurretik aipatutako arauak aplikatuta ateratzen den zenbatekoa izango da oinarri arautzailea, eta, pensioaren zenbatekoa kalkulatzeko, onartutako ezintasun mailari dagokion ehunekoa aplikatu behar zaio oinarri arautzaile horri.

- Gertaera eragilea izan den egunean langileak 52 urte baino gutxiago baditu (kotizatuta 8 urte baino gutxiago izatea eskatzen zaio):

Oinarri arautzailea aurreko egoeran adierazitako modu bertsuan lortuko da, baina zatidura honela aterako da: eska daitekeen gutxieneko kotizazio-aldiak dituen hilabeteen kopuru bereko hileko kotizazio-oinarrien batura, hilabete zatiak kontuan hartu gabe, zati kotizazio-oinarri horiei dagokien hilabete kopurua eginda, eta zatitzaile hori 1,1666 koefizientearekin biderkatuta. Eguneratzetik kanpo utziko dira beti gertaera eragilea izan den hilabetearen aurretiko hilabetearen aurre-aurreko 24 hilabetei dagozkien oinarriak.

- Gertaera eragilea izan den egunean ohiko erretirorako pensioa jasotzeko legez eskatzen den adina baduen langilea, baina erretiroa hartzeko baldintzak betetzen ez dituen:

Oinarri arautzailea izango da interesdunak gertaera eragilearen aurre-aurreko 96 hilabeteetan dituen kotizazio-oinarriak zati 112 egitean lortzen den zatidura, a) arauan ezarritakoaren arabera.



## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor osoa

### **Kotizazio-hutsuneak osatzea:**

- 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, oinarri arautzailea kalkulatzeko hartu behar den aldiari kotizatze betebeharririk gabeko hilabeteak daudela ikusten bada, lehenengo 48 hilerokoak une bakoitzean dauden oinarri guztien artetik gutxieneko oinarriarekin osatuko dira, eta gainerako hilerokoak, berriz, gutxieneko oinarri horren % 50arekin.
- Oinarri arautzailea zehazteko kontuan hartu behar diren hilabeteetako batean kotizatze betebeharra soilik hilabetearen zati batean badago, aurreko paragrafoan adierazitako osatze-irizpideari jarraituko zaio kotizatze betebeharririk ez den hilabete-parteari dagokionez, baldin eta lehenbiziko aldiari dagokion kotizazio-oinarria ez bada iristen adierazitako hileko gutxieneko oinarriara. Kasu horretan, azken zenbateko horretara bitarte osatuko da.

### **Ezintasuna lanekoa ez den istripuagatik izan bada**

- Oinarri arautzailea izango da: interesatuak segidako 24 hilabeteetan izandako kotizazio-oinarrien batura, zati 28. Aldi hori interesatuak aukeratuko du gertaera eragilea izan den egunaren aurreko 7 urteetatik.
- Gertaera eragilea izan den egunean interesdunak ez badu segidako 24 hilabeteetako kotizazio-aldia osatu, bi formula hauetatik interesdunarentzat onuragarriena dena erabilia zehaztuko da oinarri arautzailea: aurreko paragrafoan adierazi dena, edo ezintasuna eragin duen gertaera eragilea izan den aurreko 24 hilabeteetan indarrean zeuden gutxieneko kotizazio oinarrien batura zati 28 eginda ateratzen dena. Oinarri horiek eragileak azken buruan kontratatutako lanaldiari dagokion zenbatekora bihurtuko dira.

### **Ezintasuna lan-istripuagatik edo lan-gaixotasunagatik izan bada**

- Oinarri arautzailea soldata errealean gainean kalkulatu da, betiere kontuan hartuz ezin duela gaintu kotizazioaren gehienezko muga, eta ezin duela ezintasuna gertatu den uneko gutxieneko muga baino txikiagoa izan. Kalkulua egiteko, ondorengo batugaiak zati 12 egin behar da:
  - Langilearen eguneko soldata eta antzintasuna istripuaren edo gaixotasun-bajaren egunean, bider 365 egun.



## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor osoa

- Istripuaren aurreko urteko aparteko ordainsari, mozkin edo partaidetzen guztizko zenbatekoa.
- Istripuaren aurreko urteko plusak, ordainsari osagarriak eta aparteko orduak, zati aldi horretan benetan lan egindako egun-kopurua, bider 273, salbu eta dagokion jardueraren benetako lanegunak gutxiago badira; orduan, dagokion biderkatzailea aplikatuko da.

### Ehunekoa

- Oinarri arautzailearen % 55.
  - Ehuneko hori % 20 igo daiteke 55 urtetik gorakoentzat, betiere ikusten denean prestakuntza orokorrik edo espezializaturik ez edukitzeagatik eta bizi den tokiko gizarte-eta lan-egoeragatik ohikoaz bestelako enplegua lortzeko zailtasuna izan dezakeela; horri ezintasun iraunkor oso eta kualifikatua deituko zaio.
  - Langileak, ohiko erretirorako pentsioa jasotzeko arauz eskatzen den adina izanik, kontingentzia arruntengatik ezintasun iraunkor osoko pentsioa lortzen badu (erretiroa hartzeko baldintzak betetzen ez dituelako), erretiro-pentsioa eskuratzeko une bakoitzean ezarritako gutxieneko kotizazio-aldiari dagokion ehunekoa aplikatuko zaio. Gaur egun, % 50 da aplikatzen den ehunekoa, eta dagokion oinarri arautzaileari aplikatuko zaio.
  - Lan-istripuetan edo laneko gaixotasunetan, prestazioa, faltaren larritasunaren arabera, % 30etik % 50era gehituko da, lesioa arrazoi hauengatik izan bada: araututako arreta-gailurik ez duten edo horiek erabileraz kanpo edo egoera txarrean dituzten makinengatik edo aparatuengatik, edo arreta-gailurik ez duten edo horiek erabileraz kanpo edo egoera txarrean dituzten instalazioetan edo lantokietan gertatzen bada, edo laneko segurtasun- edo higiene-neurriak edo gutxieneko osasun-neurriak edo laneko egokitasun pertsonalekoak bete ez badira (langileen ezaugarriak, adina, sexua eta gainerako baldintzak kontuan hartuta).
- Errekargu hori zuzenean enpresaburu arauhausleari egotziko zaio.



## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor osoa

### Amatasunagatiko osagarria pentsioetan:

- 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, ordaindutakoaren araberako ezintasun iraunkorreko pentsioa jasotzeko eskubidea sortzen duten emakumeei pentsio-osagarri bat aitortuko zaie, Gizarte Segurantzari egindako ekarpen demografikoagatik, betiere bi seme-alaba edo gehiago izan badituzte, odolekoak nahiz adoptatuak, dagokion pentsioaren gertaera eragilea gertatu aurretik.

Osagarri horren zenbatekoa pentsioaren hasierako zenbatekoari ehuneko jakin bat aplikatuta kalkulatuko da, zeina seme-alaben kopuruaren araberakoa izango baita, eskala honi jarraituta:

- 2 seme-alaba badira: % 5
- 3 seme-alaba badira: % 10
- 4 seme-alaba edo gehiago badira: % 15

Aitortutako pentsioa, osagarria aplikatu gabe, pentsioetarako ezarritako gehieneko zenbatekoaren mugara iristen bada, pentsioaren eta osagarriaren baturak gehienez ere izan behar du muga hori gehi esleitutako osagarriaren % 50. Pentsio bat baino gehiago izanez gero, onuradunaren pentsio bakar batean aitortuko da osagarria, oro har onuragarrien den pentsioan.

### Kalte-ordaina oroharreko prezioan

- Ezintasun iraunkor osoko biziarteko pentsioa, kasu batzuetan, oroharreko prezioko kalte-ordain batek ordezka dezake, onuradunak baldintza hauek betetzen baditu:
  - 60 urte baino gutxiago izatea langileak.
  - Pentsatzea ezintasuna eragin duten lesioak ez direla aldatuko, eta, beraz, deklaraturako ezintasun hori ez dela berriz aztertu beharko.
  - Onuradunak beraren edo besteren kontura lan egitea, edo kalte-ordainaren zenbatekoa langile autonomo moduan diru-iturri berriak prestatzeko edo garatzeko inbertituko dela egiaztatzea, betiere dagokion jardueran aritzeko gaitasun nahikoa daukala egiaztatzen badu.
  - Kalte-ordaina pentsio-eskubidea onartzen dion ebazpen edo sententzia irmoa eman eta hurrengo 3 urteetan eskatzea, edo, data horretan 21 urtetik beherakoa bada, adin hori betetzen duen hurrengo hiru urteetan.



## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor osoa

### Zenbatekoa

- Eskaera egiteko unean 54 urtetik behera izanez gero, zenbatekoa pentsioaren 84 hileko izango dira gehienez, eta 59 urterekin 12 gutxienez, eskala honen arabera:

Betetako adina Urteak	Pentsiorako hileko kopurua
<54	84
54	72
55	60
56	48
57	36
58	24
59	12

- Ebazpena GSINen Antolamendu eta Laguntza Juridikoaren Zuzendariordetza Nagusiak eman behar du.
- Kalte-ordaina ebazpena ematen denetik ordainduko da.

- Ordezkapena baimentzen bada, onuradunak ezingo du eskatu baliogabetzeko eta pentsiodun izatera bueltatzeko, 60 urte bete arte.
- 60 urte betetzean, onuraduna hasieran aitortutako pentsioa jasotzen hasiko da, betiere kalte-ordainagatik ordezkatzeko baimendu zen datatik aurrera gertatutako pentsio-igotzeak sartuz.
- Onuraduna 60 urte bete baino lehen hiltzen bada, heriotzagatiko eta biziraupenerako prestazioetarako eskubidea eragingo du une horretan pentsioduna izan balitz bezala.

### Gertaera eragilea eta ondorio ekonomikoak

- Gertaera eragilea aldi baterako ezintasuna amaitu den eguna dela jotzen da, edo Ezintasunen Balorazio Lantaldeak (EVIK) edo, dagokionean, Osasun Ebaluazioen Institutu Katalanak igorritako ebazpen-proposamenaren eguna, lehenago, aldi baterako ezintasunik egon ez bada edo aldi hori amaitu ez bada.





## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor osoa

- Ondorio ekonomikoaren data ezintasun iraunkorreko ebazpen-proposamenaren eguna edo aldi baterako ezintasuna amaitu ondorengo eguna izango da, ezintasun iraunkorreko pentsioaren zenbatekoa aldi baterako sorospena baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan hartuta, edo EVIren irizpen-proposamena eman den eguna, bestela, aldi baterako ezintasunik egon ez bada edo berau amaitu ez bada.
- Ezintasun iraunkor oso eta kualifikatuko kasuetan, % 20ko igoerak eskaeraren egunetik sortzen ditu ondorio ekonomikoak, gehienez hiru hilabeteko atzeraeraginez, betiere igoera horretarako eskubidea edukitzeko beharrezko baldintzak betetzen badira.
- Lan-istripuagatik eta lanbide-gaixotasunagatik ematen diren pentsioak 12 hilekotan ordaintzen dira, aparteko ordainsariak hileko arrunten barnean hainbanatzen baitira; izan ere, pentsioaren oinarri arautzailea kalkulatzeko hartzen dira kontuan.
- Kalte-ordainei dagokienez, ordainketa kolpe batean egiten da dagokion zenbatekoan.
- Hileko gutxieneko zenbatekoak bermatzen dira onuradunak 65 urte betetzean, eta orobat ezintasun iraunkor osoko eta kualifikatuko pentsiodunei 60 urte betetzen dituztenetik aurrera; zenbatekoa aldatu egingo da bere kontura ezkontiderik duen ala ez kontuan hartuta.
- Ezintasun iraunkor osoaren eta hortik eratorritako erretiroaren prestazioa, interesatuak ohiko erretirorako pentsioa jasotzeko legez eskatzen den adina betetzean izandako izendapen-aldaketagatik, zergapean egongo da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako (PFEZ) arauetan ezarri bezala eta, dagokionean, zerga horren konturako atxikipen-sistema ezarriko zaio. Salbuespen izango dira terrorismo-ekintzen ondoriozko pentsioak.

### **Prestazioa ordaintzea**

- Gaixotasun arruntagatik eta lanekoak ez diren istripuengatik ematen diren pentsioak 14 ordainsaritan ordaintzen dira: urteko hilabete bakoitzeko bat eta urteko aparte bi ordainsari. Azken biak ekaineko eta azaroko ordainsariekin batera ordaintzen dira.



## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor osoa

### Bateragarritasunak eta bateraezintasunak

- Bateragarria da langileak enpresa berean edo beste batean jaso dezakeen soldatarekin, baldin eta zereginak ez badira ezintasun iraunkor osoa eragin zuten zereginen berdinak.

Gizarte Segurantzaren erregimen batean sar daitezkeen besteren konturako edo norberaren konturako lanak egiten badira, dagokion alta hartzeko eta kotizatzeke betebeharra dago.

- % 20ko igoera jasotzea bateraezina da norberaren edo besteren konturako lanak egitearekin eta lan horiengatik sor daitezkeen Gizarte Segurantzaren prestazioekin, adibidez, aldi baterako sorospenarekin edo amatasun- edo aitatasun-sorospenarekin, edo horiei legozkiekeen langabezia-prestazioekin.

### Prestazioa etetea.

- Onuradunak prestazioetarako eskubidea lortzeko edo eskubide horri eusteko iruzurrez jokatu bada.

- Ezintasun iraunkorra onuradunaren zuhurtziagabekeria ausartegiagatik gertatu edo areagotu bada.
- Ezintasun iraunkorra aldi baterako ezintasuneko aldian agindutako osasun - tratamenduari arrazoi zuzenik gabe uko egiteagatik edo bertan behera uzteagatik gertatu bada.
- Onuradunak, arrazoirik gabe, tratamenduak edo berregokitzeke edo errehabilitatzeko prozesuei uko egiten badie edo bertan behera uzten baditu.

### Az kentzea

- Azterketa egin, eta sendatu egin dela ikusten bada.
- Onuraduna hiltzen bada.
- Erretiro-pentsiorako eskubidea onartu bazaio, pensio hori eskuratzea hautatu duen kasuetan.
- Erakunde Kudeatzaileak ofizioz berriz aztertu badu eta pensio-eskubidea galtzea ekarri badio.



## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor absolutua

### Azalpena

Langilea edozein lanbide edo ofiziotan jarduteko gaitasunik gabe uzten du.

### Onuradunak

Erregimen orokorrean egon eta egoera hori aitortu zaien pertsonak, berau sortzeko kontingentzia edozein dela ere, betiere, beharrezko baldintzak betetzen badituzte.

### Betekizun orokorrak

Ezintasun iraunkor partzialerako baldintza orokor berberak bete behar dira (ikus 6. or.). Berezitasuna da ez-altako egoeran egonda ere eskura daitekeela pentsio hau.

### Kotizazio-betekizunak

- Alta egoeran edo parekoan sortutako ezintasuna bada: ezintasun iraunkor osorako eskatzen diren kotizazio-betekizun berberak bete behar dira, erditzeagatik eta seme-alabak edo adingabeak zaintzeagatik parekagarriak diren kotizazio-aldiak barne (ikus 9. eta 10. orriak).
- Gaixotasun arruntagatik edo lanekoa ez den istripuagatik sortutako ezintasuna bada, "ez altako" egoeran egonda:

- Kotizazio-aldi orokorra: 15 urte.
- Kotizazio-aldi espezifikoa: 3 urte azken 10 urteetan.

### Gertaera eragilea eta ondorio ekonomikoak

Gertaera eragilea eta ondorio ekonomikoak ezintasun iraunkor osokoaren berdinak dira (ikus 15. or.), salbu eta ezintasun iraunkorra altan egon gabeko egoera batetik gertatzen bada; kasu horretan, gertaera eragilea eskaera-egunean izan dela jotzen da, eta ondorio ekonomikoak data horretan finkatzen dira.

### Prestazioaren zenbatekoa

Pentsioaren zenbatekoa oinarri arautzaileari dagokion ehunekoa aplikatuz lortzen da.

### Ehunekoa

- Oinarri arautzailearen % 100.
- Lan-istripuetan edo laneko gaixotasunetan, pentsioak ezintasun iraunkor osoko ehunekoaren hein berean igoko dira, faltaren larritasunaren arabera (ikus 13. or.), eta errekaru hori zuzenean enpresaburu arauhausleari egotziko zaio, segurtasun- eta higiene-neurririk ez izateagatik.



## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor absolutua

- Langileak, ohiko erretirorako pentsioa jasotzeko legez eskatzen den adina izanik, kontingentzia arruntengatik ezintasun iraunkor absolutuko pentsioa lortzen badu (erretiro-pentsioa jasotzeko baldintzak biltzen ez dituelako), erretiro-pentsioa eskuratzeko une bakoitzean ezarritako gutxieneko kotizazio-aldiari dagokion ehuneko aplikatuko zaio. Gaur egun, % 50 da aplikatzen den ehuneko, eta dagokion oinarri arautzaileari aplikatuko zaio.

### **Amatasunagatiko osagarria pentsioetan:**

- 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, ordaindutakoaren araberako ezintasun iraunkorreko pentsioa jasotzeko eskubidea sortzen duten emakumeei pentsio-osagarri bat aitortuko zaie, Gizarte Segurantzari egindako ekarpen demografikoagatik, betiere bi seme-alaba edo gehiago izan badituzte, odolekoak nahiz adoptatuak, dagokion pentsioaren gertaera eragilea gertatu aurretik.

Osagarri horren zenbatekoa pentsioaren hasierako zenbatekoari ehuneko jakin bat aplikatuta kalkulatuko da, zeina seme-alaben kopuruaren araberakoa izango baita, eskala honi jarraituta:

- 2 seme-alaba badira: % 5
- 3 seme-alaba badira: % 10
- 4 seme-alaba edo gehiago badira: % 15

Aitortutako pentsioa, osagarria aplikatu gabe, pentsioetarako ezarritako gehieneko zenbatekoaren muga iristen bada, pentsioaren eta osagarriaren baturak gehienez ere izan behar du muga hori gehi esleitutako osagarriaren % 50. Pentsio bat baino gehiago izanez gero, onuradunaren pentsio bakar batean aitortuko da osagarria, oro har onuragarrien den pentsioan.

### **Oinarri arautzailea**

- Ezintasunak gaixotasun arrunt bat badu jatorri, eta altan edo antzeko egoera batean egonda gertatzen bada, oinarri arautzailea ezintasun iraunkor osorako kalkulatzen den bezala kalkulatuko da (ikus 10. or.).
- Ezintasunak gaixotasun arrunt bat badu jatorri baina altan ez dagoen egoera batean gertatzen bada, oinarri arautzailea 52 urtetik gorakoentzako ezintasun iraunkor osorako kalkulatzen den bezala kalkulatuko da.



## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor absolutua

- Ezintasunak kontingentzia profesionalak baditu jatorri, oinarri arautzailea ezintasun iraunkor osorako kalkulatzeko da (ikus 12. or.).
- Ezintasunak lanekoa ez den istripu bat badu jatorri, alta egoeran edo antzekoan egonda, oinarri arautzailea ezintasun iraunkor osorako kalkulatzeko da (ikus 12. or.).
- Ezintasunak lanekoa ez den istripu bat badu jatorri, altan egon gabeko egoera batean, gertaera eragilearen aurreko hilabetearen aurreko 96 hilabeteen kotizazio-oinarrien batura, zati 112 eginda lortuko da oinarri arautzailea.

### **Oinarriak eguneratzea eta hutsarteak integratzea**

Gaixotasun arruntak eragindako ezintasun iraunkor osoan bezala egiten da (ikus 11. eta 12. or.).

## **Prestazioa ordaintzea**

- Gaixotasun arruntatik eta lanekoak ez diren istripuengatik ematen diren pentsioak 14 ordainsaritan ordaintzen dira: urteko hilabete bakoitzeko bat eta urteko aparteko bi ordainsari. Azken biak ekaineko eta azaroko ordainsariekin batera ordaintzen dira.
- Lan-istripuengatik eta lanbide-gaixotasunengatik ematen diren pentsioak 12 hilekotan ordaintzen dira, aparteko ordainsariak hileko arrunten barnean hainbanatzen baitira; izan ere, pentsioaren oinarri arautzailea kalkulatzeko hartzen dira kontuan.
- Hileko gutxieneko zenbatekoak bermatzen dira, eta zenbateko hori aldatu egingo da, bere kontura ezkontiderik duen ala ez kontuan izanda.
- Ezintasun iraunkor absolutuaren zein baliaezintasun handiaren pentsioak, baita horietatik eratorritako erretiroarenak ere, interesatuak ohiko erretirorako pentsioa jasotzeko legez eskatzen den adina betetzean izandako izendapen-aldaketengatik, salbuetsita daude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZen) atxikipenetatik.



## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkor absolutua

### Bateragarritasunak

- Pentsioak ez dio eragotziko ezinduari jarduerak egitea, irabazi asmokoak izan edo ez, betiere ezintasun-egoerarekin bateragarriak badira eta lanerako gaitasunean aldaketarik ez badakar, zeinak ezintasuna berriz aztertzea eragingo lukeen.

Gizarte Segurantzako erregimen batean sar daitezkeen lanak egiten badira, dagokion alta hartzeko eta kotizatzeke betebeharra dago, eta pentsiodunak jarduerari ekin diola jakinarazi behar dio erakunde kudeatzaileari, jarduera norberaren edo besteren konturakoa izan.

- Betebehar horiek beteta ere, pentsioa onartu duen erakunde kudeatzaileak ezintasun iraunkorra berriz aztertzeke ahalmena izango du.

- Erretiroa jasotzeko adinetik aurrera, ezintasun iraunkor absolutuaren eta baliaezintasun handiaren pentsioak bateragarri izango dira norberaren konturako edo besteren konturako lan batekin, zeinak gizarte segurantzaren erregimen batean sartzea ekarriko duen, ordaindutakoaren arabera erretiro-pentsiorako arautu den modu eta baldintza berberetan.

### Etena eta azkentzea

Ezintasun iraunkor osorako adierazitako arrazoi berberak (ikus 17. or.).



## Erregimen orokorra. Baliaezintasun handia

### Azalpena

Ezintasun iraunkorreko egoeran dagoen langilea da, baina, galera anatomikoak edo funtzionalak edukitzeagatik, bizitzako ekintza oinarritzkoetarako (adibidez, jantzi, mugitu, jan eta antzekoetarako) beste pertsona baten laguntza behar du.

### Onuradunak

Erregimen orokorraren barruan egon eta baliaezintasun handia aitortu zaien pertsonak, betiere, eskatzen bazien betekizunak betetzen badituzte.

### Betekizunak

Ezintasun iraunkor absoluturako eskatutako baldintza orokor eta kotizazio-baldintza berberak bete behar dira (ikus 18. or.).

### Gertaera eragilea eta ondorio ekonomikoak

Gertaera eragilea eta ondorio ekonomikoak ezintasun iraunkor osoan azaldutako berdinak dira (ikus 15. or.), salbu eta ezintasun iraunkorra alta-egoera eta altaren antzeko egoera ez diren egoera batetik gertatu bada; kasu horretan, gertaera eragilea eskaeraren egunean izan dela

jotzen da, eta ondorio ekonomikoak data horretan finkatzen dira.

### Prestazio ekonomikoa

- 2008-01-01aren ondorengo gertaera eragileetarako, beste izaera bat izango du baliaezintasun handiko prestazio ekonomikoak; bi elementu izango ditu:
- Ezintasun iraunkor oso bati edo ezintasun iraunkor absolutu bati dagokien biziarteko pentsioa. Biziarteko pentsioaren zenbatekoa oinarri arautzaileari dagokion ehuneko aplikatuta lortzen da, ezintasun iraunkor osorako edo absoluturako ezarritakoa kontuan hartuta.
- Baliaezintasuna duen pertsonak bera artatzen duen pertsonari ordaintzeko osagarria: osagarri honen zenbatekoa gertaera eragilearen unean indarrean dagoen gutxieneko kotizazio-oinarriaren % 45 eta ezintasun egoera eragin duen kontingentziari dagokion langilearen azken kotizazio-oinarriaren % 30 batuta lortuko da. Osagarria ezingo da inolaz ere langileak osagarririk gabe jasoko lukeen pentsioaren % 45 baino gutxiago izan.



## Erregimen orokorra. Baliaezintasun handia

### Prestazioa ordaintzea

Pentsioa ezintasun iraunkor absolutuaren pentsioa ordaintzen den modu berean ordainduko da (ikusi 20. or.).

#### **Amatasunagatiko osagarria pentsioetan:**

- 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, ordaindutakoaren araberako ezintasun iraunkorreko pentsioa jasotzeko eskubidea sortzen duten emakumeei pentsio-osagarri bat aitortuko zaie, Gizarte Segurantzari egindako ekarpen demografikoagatik, betiere bi seme-alaba edo gehiago izan badituzte, odolekoak nahiz adoptatuak, dagokion pentsioaren gertaera eragilea gertatu aurretik.

Osagarri horren zenbatekoa pentsioaren hasierako zenbatekoari ehuneko jakin bat aplikatuta kalkulatuko da, zeina seme-alaben kopuruaren araberakoa izango baita, eskala honi jarraituta:

- 2 seme-alaba badira: % 5
- 3 seme-alaba badira: % 10
- 4 seme-alaba edo gehiago badira: % 15

Aitortutako pentsioa, osagarria aplikatu gabe, pentsioetarako ezarritako gehieneko zenbatekoaren mugara iristen bada, pentsioaren eta osagarriaren baturak gehienez ere izan behar du muga hori gehi esleitutako osagarriaren % 50. Pentsio bat baino gehiago izanez gero, onuradunaren pentsio bakar batean aitortuko da osagarria, oro har onuragarrien den pentsioan.

### **Bateragarritasunak**

Ezintasun iraunkor absoluturako adierazitako arrazoi berberak (ikusi 21. or.).

### **Etena eta azkentzea**

Eteteko eta azkentzeko kausak ezintasun iraunkor osorako azaldutako berberak dira (ikusi 17. or.).





## Erregimen orokorra. Ezintasun iraunkorra berriz aztertzea.

### Berriz aztertzeko arrazoiak

- Larriagotzea
- Hobetzea.
- Diagnostiko akatsa.
- Pentsiodunak besteren kontura edo bere kontura lan egitea.

### Berrazterketa-epeak

- Edozein mailatan, ezintasun iraunkorreko prestazioetarako "eskubidea aitortzen" duten ebazpen guztietan (lehenengoa edo berrazterketetakoak), edo aurretik aitortutako maila berresten dutenetan, nahitaez adieraziko da larriagotzeagatik edo hobetzeagatik beste azterketa bat egitea noiz eska daitekeen (betiere ezinduak erretiro-pentsioa jasotzeko ezarritako gutxieneko adina bete ez badu).

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, onuradunak ezarritako gutxieneko adina beteta izanagatik ere, aztertu egin daitezke hasieran onartutako ezintasun iraunkorraren maila eta prestazioa, ezintasun hori laneko gaixotasunetik sortu bada.

- Ezintasun iraunkorra aitortzeko lehenengo ebazpenean, ezintasun-egoerak hobera egingo duelakoan bi urte edo gutxiagoko epe bat adierazten bada, langileak lanpostua gordetzeko eskubidea izango du bi urtez, ezintasun iraunkorra adierazten duen ebazpenaren egunetik aurrera.
- Berriz aztertzeko epeak lotesleak dira ezintasun iraunkorra duten subjektuentzat, eta, beraz, ezingo dira epe hori bete baino lehen eskatu, kasu hauetan izan ezik:
  - Ezintasun iraunkorreko pentsiodunak norberaren edo besteren konturako edozein lan egitea. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, ofizioz edo interesatuak hala eskatuta, azterketak bultza ditzake, ebazpenean zehaztutako epea igaro den edo ez kontuan hartu gabe.



- Diagnostiko akatsa. Azterketa edozein unetan egin daiteke, baldin eta interesatuak ohiko erretiroa jasotzeko legez ezarritako adina bete ez badu.
- Ondoez berriak agertu badira.
- Berrazterketa-eskariei ezezkoa ematen dieten ebazpenetan ezingo da eperik jarri, eta edonoiz eskatu ahal izango da beste azterketa bat egiteko.

### **Berrazterketaren ondorioak**

- Ezintasun maila berrestea.
- Ezintasuna amaitzea, eta ondorioz, baita pentsioa ere.
- Ezintasun-maila aldatzea, eta ondorioz, baita prestazioarena ere. Azterketa eginda aitortu den ezintasun iraunkorreko maila berriari dagokion pentsioaren ondorio ekonomikoak ebazpen-proposamena egin den egunetik aurrera sortuko dira.

Ezintasun iraunkorreko pentsioek erretiro-pentsio izendapena hartuko dute onuradunek une bakoitzean indarrean dagoen ohiko erretirorako adina betetzen dutenean, baina izendapen berri horrek ez du aldaketarik ekarriko ordura arteko prestazio\_baldintzetan, ezta horietatik sor daitekeen prestazioen erregimen juridikoan ere.

Ondorioz, ez dagokie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipenik aplikatzea erretiro-pentsio izendapena hartuko duten ezintasun iraunkor absolutuko eta baliaezintasun handiko pentsioei.



## Erregimen orokorra. Sistema bereziak - berezitasunak

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gizarte Segurantzaren etxeko langileen erregimen berezia eta Gizarte Segurantzaren nekazaritzako erregimen berezia Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartuta geratu dira, eta sistema berezi bat ezarri da nekazaritzako besteren konturako langileentzat eta beste sistema berezi bat etxeko langileentzat.

Prestazioak Gizarte Segurantzako erregimen orokorraren arau eta baldintza berberetan ematen dira, berezitasun hauek kontuan hartuta:

### ETXEKO LANGILEENTZAKO SISTEMA BEREZIA

**Oinarri arautzailea:** kontingentzia arrunten ondorioz gertatutako ezintasun iraunkorren pentsioen oinarri arautzailea kalkulatzeko, benetan kotizatutako aldiak bakarrik hartuko dira kontuan, eta ezingo dira kotizazio-hutsuneak integratu.

**Kontingentzia profesionalak:** prestazioei begira, ez da aplikatuko erregimen orokorrak araututako erantzukizun-erregimena.

### NEKAZARITZAKO BESTEREN KONTURAKO LANGILEENTZAKO SISTEMA BEREZIA

Ezintasun iraunkorreko pentsioa aitortzeko ezinbestekoa izango da langileek jarduerarik gabeko aldiei dagozkien kotizazioen ordainketak egunean edukitzea, haien erantzukizuna baitira.

**Oinarri arautzailea:** kontingentzia arrunten ondorioz gertatutako ezintasun iraunkorren pentsioen oinarri arautzailea kalkulatzeko, benetan kotizatutako aldiak bakarrik hartuko dira kontuan, eta ezingo dira kotizazio-hutsuneak integratu.



### BEREN KONTURAKO LANGILEEN EDO AUTONOMOEN GIZARTE SEGURANTZAKO ERREGIMEN BEREZIA

Kuotak ordainduta izatea, langileek baitute ordainketa horren zuzeneko ardura. Une horretara arteko kuotak ordaindu gabe edukiz gero, ordaintzeko eskaera egiteko legeak aurreikusten duen prozedura aplikatuko da.

- **Ezintasun iraunkor partziala:** ez da babesten kontingentzia arrunten kasuan.
- **Ezintasun iraunkor osoa:**
  - 2003-01-01etik aurrera aitortutako egoeretarako, % 20ko gehikuntza aitortzen zaie 55 urtetik gorakoei.
  - Kalte-ordaina: ezintasuna deklaratu ondorengo 30 egunetan, oinarri arautzailearen 40 hileko oroharreko prezioko zenbateko bat ala biziarteko pentsio bat aukeratzeko modua egongo da, betiere langileak 60 urte bete ez baditu.
- **Kontingentzia profesionalak:**
  - ez da errekargurik ezartzen prebentzio-neurririk ez hartzeagatik.
  - oinarri arautzailea, gertaera eragilearen datako kotizazio-oinarria izango da.
  - ezintasun iraunkor partziala da langileari bere lanbidean aritzeko errendimendu normala, gutxienez, % 50 jaisten diona.
- **Oinarri arautzailea:** kotizazioko hutsarteak ez dira gutxienerako oinarriekin integratzen.

### IKATZ-MEATZARITZAREN GIZARTE SEGURANTZAKO ERREGIMEN BEREZIA

- Hasierako ezintasun-aitorpenean zein berrazterketan, langilearen egoeraren baterako balorazioa egiten da.
- **Oinarri arautzailea** kalkulatzeko, kotizazio-oinarri normalizatuak erabiltzen dira.
- **Ezintasun iraunkor osoa:** adin-hobariak aplikatuko dira pentsioa oroharreko prezioko kalte-ordainarekin ordezkatzeko eta pentsioa 55 urtetik aurrera % 20 gehitzeko.
- **Ezintasun iraunkor absolutua eta baliaezintasun handia:** egoera jakin batzuetan, arauz ezarritako adinarekin jasoko den erretiro-pentsio batekin ordezkatu daiteke.



## Kudeaketa eta eskaerak

### Kalifikazioa eta kudeaketa

- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari dagokio, bere organoen bidez eta prozeduraren fase guztietan (kontingentzia estaltzen duen erakunde kudeatzailea edo laguntzailea edozein dela ere), ezintasuna ebaluatu, kalifikatu eta berraztertzea eta maila desberdinetako ezintasun iraunkorregatik Gizarte Segurantzako ordaindutakoaren arabera prestazio ekonomikoetarako eskubidea aitortzea, baita horiek eragin dituzten kontingentziak zein diren erabakitzea ere.
- Kudeaketa Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egiten du (GSIN), eta Itsasoko Gizarte Institutuak (IGI), itsasoko erregimen bereziaren ezarpen-esparruan sartzen diren langileen kasuan.
- Ordainketa hauek egiten dute:
  - Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, edo, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuak, ezintasun iraunkorra gaixotasun arruntagatik edo lanaz bestelako istripuagatik bada.

- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren Laneko Istripu eta Gaixotasunen Mutualitateak, ezintasun iraunkorra lan-istripu edo -gaixotasunagatik izan bada.

Biziarteko pentsioetan, GSINk egingo du, betiere Mutualitateak pentsioaren kapital-kostuaren uneko balioa finkatu ondoren.

### Eskaerak

- Eskaera eredu ofizialaren arabera egitea komeni da; ez da ezinbestekoa, ordea.
- Eskaera interesatua bizi den GSINen probintzia bulegoaren kudeaketa-zentroan tramitatu eta ebatziko da, baina edozein erregistro ofizialetan aurkez daiteke.



## Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak (\*)

### KASU GUZTIETAN

- Interesdunaren, legezko ordezkariaren eta eskaeran azaltzen direnen nortasuna egiaztatzen duten egiaztatagiriak:
  - Espainiarrak: Nortasun Agiri Nazionala (NAN)
  - Atzerritarrek, bizitokia Espainian izan edo ez: pasaportearen edo, beharrezko izanez gero, beren herrialdean indarrean dagoen nortasun-agiria eta AIZ (atzerritarren identifikazio zenbakia), Zergak Administrazio Espainiako Agentziak eskatzen baitu ordainketak egiteko.
- Legezko ordezkariaren egiaztatze agiriak, hala bategokio, edo eskatzaile adingabearen emantzipazioa egiaztatzeak. Erakunde-tutorea izanez gero, IFK/IFZ, tutore izateko erakundea izendatu dela adierazten duen agiria, eta erakundearen ordezkariaren egiaztatze agiria.

(\*) Jatorrizko agiria eta fotokopia, konpultsatzeko, edo fotokopia konpultsatua, nortasun agiriaren izan ezik, kasu horietan nahikoa da eta jatorrizkoa erakustea.

- Judizialki ezgaituta badago, hala dagoela adierazten duen ebazpen judiziala aurkeztu behar da edo, bestela, Erregistro Zibilaren egiaztatagiria.

### LAN-ISTRIPU EDO LAN-GAIXOTASUNAREN KASUAN

- Lan-istripuaren edo lan-gaixotasunaren administrazioaren parteak.
- Aurreko urtean jasotako benetako soldaten enpresa-ziurtagiria.

### GUTXIENEN OSAGARRI BAT ONARTU AHAL IZATEKO

- Espainian bizi diren atzerritarren kasuan: Atzerritarren Erregistro Zentralean inskribatuta daudela adierazten duen ziurtagiria edo Atzerritarren Identifikazio Txartela.
- Ezkontideak eskatzailearekin zer ahaidetasun duen egiaztatzen duten familia-liburua, Erregistro Zibileko aktak edo ziurtagiri ofizial bat, hala badagokio.



### **BESTE EGOERA BATZUK EGIAZTATZEKO**

- Eskatzaileak bere esku badu, bere autonomia erkidegoko osasun publikoko zerbitzuak egindako historia klinikoa, edo, hala badagokio, zerbitzu horren Ikuskaritza Medikoaren txostena.
- Erregistro Zibileko ziurtagiria edo familia-liburua, adopzioari buruzko ebazpen judiziala edo familia-harrerari buruzko erabaki administratiboa edo judiziala, kasuaren arabera; agiri horiek egiaztatu behar dute adierazi diren jaiotzak, abortuak, adopzioak edo familia-harreran hartutakoak.
- Indar Armatuetakoko edo Segurtasuneko Indar eta Gorputzetako langileak: Defentsa edo Barne Ministerioen agintaritza eskudunaren ebazpena, zerbitzu profesionala emateari utzi zaiola adierazten duena, bai eta historia klinikoa, txosten medikoaren laburpena eta baldintza psikofisikoak balioesten dituen irizpena ere. Horretaz gain, eta hala badagokio, Defentsa edo Barne Ministerioen eskumeneko organoaren ebazpena, ezintasun iraunkorra zerbitzua ematen ari zela gertatu dela adierazten duena, eta dagokion langileen zuzendaritza nagusiaren ziurtagiria, zeinetan jasoko diren zerbitzua emateari utzi zaion egunean Estatuko Klase Pasiboen Erregimena aplikatu izan balitzaio egokituko litzaiokeen ezohiko pentsioaren hileko eta urteko zenbatekoak.



- 1956ko ekainaren 22ko Dekretua, lan-istripuen legediari eta berau aplikatzeko erregelamenduari buruzko testu bategina onartzen duena. (1956-07-15eko BOE; Akatsen zuzenketa: uztailaren 18koa eta irailaren 3koa).
- 3158/1966 Dekretua, abenduaren 23koa, Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko prestazio ekonomikoen zenbatekoak zehazteko eta horietarako eskubidea edukitzeko erregelamendu nagusia onartzen duena (abenduaren 30eko BOE).
- 69-4-15eko Agindua, baliaezintasunagatiko prestazioak aplikatu eta garatzeko arauei buruzkoa (BOE 5/8 - Akatsen Zuzenketa: 8/9).
- 2530/1970 Dekretua, abuztuaren 20koa, Bere Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezia arautzen duena (BOE 9/15, Akatsen zuzenketa: 9/30).
- 1646/1972 Dekretua, ekainaren 23koa, Gizarte Segurantzako erregimen orokorraren prestazioei buruzkoa (BOE 6/28).
- 1972-7-31ko Agindua, ekainaren 23ko 1646/1972 Dekretua aplikatu eta garatzekoa, erregimen orokorraren prestazioei buruzkoa (BOE 8/11).
- 298/1973 Dekretua, otsailaren 8koa, Ikatz-meatzaritzako Gizarte Segurantzaren Erregimen Berezia eguneratzeari buruzkoa, ekainaren 21eko 1972/24 Legearen arabera (BOE, 2/27).
- 2609/1982 Errege Dekretua, irailaren 24koa, baliaezintasun-egoerak ebaluatu eta deklaratzeari buruzkoa (BOE 10/19 - Akatsen Zuzenketa: 11/25).
- 1071/1984 Errege Dekretua, maiatzaren 23koa, ezintasun iraunkorraren arloko hainbat alderdi aldatzen dituena (BOE 6/7).
- 1799/1985 Errege Dekretua, urriaren 2koa, erretiroko eta ezintasun iraunkorreko pentsioak arrazionalizatzeari buruzkoa (BOE 10/5).
- 691/1991 Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Gizarte Segurantzako erregimenen arteko kuoten elkarrekiko konputuari buruzkoa. (BOE 5/1 - Akatsen Zuzenketa: 5/23).





## Ezintasun iraunkorra

- 1992-11-2ko Ebazpena, Gizarte Segurantzako Antolamendu Juridikoaren eta Erakunde Laguntzaileen Zuzendaritza Orokorrarena, Sisteman integratutako erregimenetako batean sartzea eragiten duten lanetan diharduten pentsiodunek Gizarte Segurantzari alta jakinarazi eta kotizatzeke betebeharrari buruzkoa (BOE 11/24).
- 1300/1995 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Gizarte Segurantzako sistemaren lan-ezintasuneko gaietan abenduaren 30eko 42/1994 Legea, neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzkoa, garatzen duena (BOE 8/19).
- 96-1-18ko Agindua, Gizarte Segurantzako sistemaren lan-ezintasunei buruzko uztailaren 21eko 1300/1995 Errege Dekretua aplikatzen eta garatzen duena (BOE 1/26, Akatsen Zuzenketa: 2/9).
- 1647/1997 Errege Dekretua, urriaren 31koa, 24/1997ko Legea, uztailaren 15ekoa, Gizarte Segurantzako Sistema sendotu eta arrazionalizatzeari buruzkoaren hainbat alderdi garatzen dituena (6. artikulua eta 2. xedapen gehigarria indargabetuta) (BOE 11/13).
- 20/2007 Legea, uztailaren 11koa, Langile Autonomoaren Estatutuarena (BOE 7/12).
- 29/2012 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, etxeko langileen erregimen bereziaren kudeaketa eta gizarte babesa hobetzekoa, eta ekonomia- nahiz gizarte-arloetako beste neurri batzuei buruzkoa (BOE 12/31).
- 1716/2012 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, Gizarte Segurantzaren Sistema eguneratze, egokitze eta berritzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legeak prestazioen arloan ezarritako xedapenak garatzen dituena (BOE, 12/31).
- 1/2014 Legea, otsailaren 28koa, Lanaldi partzialeko langileak babesteari eta arlo ekonomiko eta sozialeko beste premiazko neurri batzuei buruzkoa (BOE 3/1).
- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena (BOE, 10/31).

# GSINen probintzia-zuzendaritzak



ARABA (Gasteiz)	Eduardo Dato, 36	01005	945 160 700
ALBACETE	Avda. de España, 27	02002	967 598 700
ALACANT	Churruca, 26	03003	965 903 100
ALMERIA	Pl. Emilio Pérez, 3	04001	950 189 500
ASTURIAS (Oviedo)	Santa Teresa de Jesús, 8-10	33007	985 666 200
AVILA	Avda. de Portugal, 4	05001	920 359 400
BADAJOS	Ronda del Pilar, 10	06002	924 216 100
BARTZELONA	Sant Antoni M. Claret, 5-11	08037	934 345 200
BIZKAIA (Bilbo)	Kale nagusia, 89	48011	944 284 500
BURGOS	Vitoria, 16	09004	947 476 600
CACERES	Avda. de España, 14	10001	927 620 000
CADIZ	Pl. de la Constitución, s/n	11008	956 298 600
KANTABRIA (Santander)	Avda. Calvo Sotelo, 8	39002	942 394 300
CASTELLÓ	Avda. del Mar, 6	12003	964 354 000
CEUTA	Alcalde M. Olivencia Amor, s/n	51001	956 526 800
CIUDAD REAL	Avda. Rey Santo, 2	13001	926 292 800
KORDOBA	Córdoba de Veracruz, 4	14008	957 221 000
CORUÑA, A	Ronda Camilo José Cela, 16	15009	881 909 300
CUENCA	Parque de San Julián, 7	16001	969 178 400
GIPUZKOA (Donostia)	Otamendi Anaiak 13	20014	943 483 600
GIRONA	Santa Eugènia, 40	17005	872 082 500
GRANADA	Restauradores, 1	18006	958 181 200
GUADALAJARA	Carmen, 2	19001	949 888 300
HUELVA	San José, 1-3	21002	959 492 500
HUESCA	Avda. Pirineos, 17	22004	974 294 300
BALEAR UHARTEAK (Palma)	Pere Dezcallar i Net, 3	07003	971 437 300



## Ezintasun iraunkorra

JAÉN	Fuente de Buenora, 7	23006	953 216 500
LEÓN	Avda. Padre Isla, 16	24002	987 845 700
LLEIDA	Jordi Cortada, 2	25001	973 700 700
LUGO	Ronda Músico Xosé Castiñeira, 26	27002	982 293 300
MADRIL	Serrano, 102	28006	915 661 000
MÁLAGA	Huéscar, 4	29007	952 979 000
MELILLA	General Marina, 18	52001	952 680 000
MURTZIA	Avda. Alfonso X El Sabio, 15	30008	968 382 300
NAFARROA (Iruña)	Oliveto Kondea, 7	31003	948 289 400
OURENSE	Concejo, 1	32003	988 521 000
PALENTZIA	Avda. Comunidad Europea, 16	34004	979 168 000
PALMAS, LAS	Pérez del Toro, 89	35004	928 249 024
PONTEVEDRA (Vigo)	O Grove, 4	36209	986 249 700
ERRIOXA (Logroño)	Sagasta, 2	26001	941 276 000
SALAMANCA	P.º Canalejas, 129	37001	923 296 100
SANTA CRUZ DE TENERIFE	Avda. José Manuel Guimerá, 8	38003	922 601 300
SEGOVIA	Pinar de Valsaín, 1	40005	921 414 400
SEVILLA	Sánchez Perrier, 2	41009	954 746 000
SORIA	San Benito, 17	42001	975 234 500
TARRAGONA	Rambla Nova, 84	43003	977 259 625
TERUEL	Tarazona de Aragón, 2-A	44002	978 647 100
TOLEDO	Venancio González, 5	45001	925 396 660
VALENTZIA	Bailén, 46	46007	963 176 000
VALLADOLID	Boston 4 y -6	47007	983 215 600
ZAMORA	Avda. Requejo, 23	49012	980 559 500
ZARAGOZA	Doctor Cerrada, 6	50005	976 703 400

## **Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala.**

Zerbitzu Zentralak

Padre Damián, 4 - 28036 Madril

Telefonoa: 915 688 300

**Informazio-telefonoa:**

901 16 65 65

[www.seg-social.es](http://www.seg-social.es)

<https://sede.seg-social.gob.es/>





GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE EMPLEO  
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAKO ESPAINIAKO INSTITUTUA  
INSTITUTO NACIONAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL